**Alkatearen 65/2013 Dekretua, apirilaren 17koa**

Asier López de Sabando Dieguez jaunak, 2012ko urriaren 18an, udal honetan eskaera aurkeztu zuen udalaren biztanle erroldan baja emateko Fernando Plágaro Pérez de Arrilucea jaunari, ez baita bizi Durako Irizaya kaleko 1.enean duen etxebizitzan.

Alkatearen urriaren 18ko 218/2012 Dekretu bidez, dagokion espedientea bideratu zen, interesdunari 15 eguneko epean entzunaldia eskainita bere eskubideen alde egoki irizten ziona adierazteko. Aipatutako dekretua jendaurrean egon zen jarrita udaleko iragarki taulan, ALHAOn (9 zk., 2013ko urtarrilaren 21a) eta Durako Administrazio Batzarreko iragarki taulan.

Epe hori bukatu zenean, Errolda Kontseiluari eskatu zitzaion eman zezala aldeko txostena udalaren biztanle erroldan baja eman ahal izateko.

Errolda Kontseiluaren Arabako Atalak 2013ko apirilaren 9n egindako bilkuraren egiaztagiria bidali zuen apirilaren 11n. Egiaztagiri horretan aldeko txostena eman zitzaion eskatutako bajari.

Honen bidez eta indarreko legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honakoa:

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Behar bezala erroldatuta ez egoteagatik, Fernando Plágaro Pérez de Arrilucea jaunari (NAN: 44.684.506-Z) udalaren biztanle erroldan ofizioz baja ematea, 2013ko apirilaren 9ko datarekin.

BIGARRENA.- Honako hau jakinaraztea interesdunei, berariazko jakinarazpen bidez edo, beraien helbidea lortu ezin bada, ALHAOn argitaratuz. Udalbatzari ere jakinaraziko zaio egiten den hurrengo bilkuran.

Honakoa ALHAOn emango da argitara, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Dura, 2013ko apirilaren 19a.– Alkatea, RUFINO SAEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

**Decreto de Alcaldía 65/2013 de 17 de abril**

Con fecha 18 de octubre de 2012 D. Asier López de Sabando Dieguez, presenta solicitud en este Ayuntamiento para dar de baja en el Padrón Municipal de Habitantes a D. Fernando Plágaro Pérez de Arrilucea, por no residir en su vivienda sita en la C/ Irizaya nº 1 de la localidad de Durana.

Por Decreto de Alcaldía 218/2012 de 18 de octubre, se instruye el correspondiente expediente, habiéndose dado audiencia al interesado por el plazo de 15 días para que alegara lo que estimase conveniente a su derecho. El citado Decreto ha sido expuesto en el tablón de anuncios del Municipio, en el BOTHA nº 9 de fecha 21 de enero de 2013 y en el tablón de anuncios de la Junta Administrativa de Durana.

Transcurrido el citado plazo se solicita al Consejo de Empadronamiento la emisión del correspondiente informe favorable para proceder a realizar la baja en el Padrón Municipal de Habitantes.

Remitido con fecha 11 de abril por la Sección Provincial de Álava del Consejo de Empadronamiento, certificado de la reunión celebrada el día 9 de abril de 2013 en la que se emite informe favorable a la baja solicitada.

Por la presente y en base a las facultades que me otorga la legislación vigente

RESUELVO

PRIMERO.- Proceder a dar de baja de oficio por inclusión indebida en el Padrón Municipal de Habitantes a D. Fernando Plágaro Pérez de Arrilucea, con DNI nº 44.684.506-Z, con fecha 9 de abril de 2013.

SEGUNDO.- Dese cuenta a los interesados mediante notificación expresa o publicándose si fuese imposible su localización en el BOTHA y al Ayuntamiento Pleno en el primera Sesión que se celebre.

Lo que se notifica mediante su publicación en el BOTHA a los efectos prevenidos en el artículo 59.4 de la ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

Durana, 19 de abril de 2013.– El alcalde, RUFINO SAEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

## ARTZINIEGA

**1979**

**Behin betiko onartzea eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketari buruzko ordenantza.**

Udal honek, 2013ko otsailaren 21eko aparteko bilkuran, Artziniegako udalerrian eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketari buruzko Ordenantza behin-behinean onartzea erabaki zuen.

2013ko martxoaren 1ean ALHAOn (26. zk) argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean jarri zen eta aldi horretan erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartu da eta honela idatzita geratu da:

### ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua. Xedea.**

Ordenantza honen xedea da eraispen, eraikuntza eta indusketa obretako lurren, hondarren eta obra hondakinen kudeaketarako ekintzak arautzea, hondakin hauek natur baliabideetan, ingurumenean eta bizi kalitatean izan dezaketen eragina saihesteko.

**2. artikulua. Definizioak.**

Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek ezarri dira. Horretarako, eraikuntza eta eraiste hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak eta Hondakinei buruzko Plan Nazional Integratuak (PNIR) ezarritakoak izan dira kontuan.

## ARTZINIEGA

**1979**

**Aprobación definitiva de la Ordenanza sobre gestión de residuos de la construcción y demolición.**

Este Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el día 21 de febrero de 2013, acordó la aprobación provisional de la Ordenanza sobre Gestión de Residuos de la construcción y demolición en el término municipal de Artziniega.

Expuesta al público mediante anuncio insertado en el BOTHA 26 de fecha 1 de marzo de 2013 y no habiéndose presentado reclamaciones en el periodo de exposición, queda definitivamente aprobada, quedando redactada de la siguiente forma:

### ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE GESTIÓN DE RESIDUOS DE LA CONSTRUCCIÓN Y DEMOLICIÓN

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1. Objeto.**

La presente Ordenanza tiene por objeto regular aquellas acciones encaminadas a la gestión controlada de tierras, escombros y restos de obra generados en obras de demolición, construcción y excavación con el fin de impedir los efectos que estos residuos puedan tener sobre los recursos naturales, el medio ambiente y la calidad de vida.

**Artículo 2. Definiciones.**

A los efectos de esta Ordenanza, se consideran las siguientes definiciones. Para ello se han tenido en cuenta las establecidas por el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, y por el Plan Nacional Integrado de Residuos (PNIR).

Eraikuntza eta eraispen hondakina: Apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 3.a) artikuluan dagoen «hondakin» definizioa beteaz, eraikuntza edo eraispen obra batean sortzen den substantzia edo objektu oro.

Hondakin bizigabea: Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko esanguratsurik izaten ez duen arriskurik gabeko hondakina, ez da disolbagarria, ezta jangarria ere, ez du erreakzio fisikorik, ez kimikorik, ezta bestelakorik ere, ez da biodegradagarria, ez du harremanetan egon daitekeen beste materietan eragin negatiborik, ondorioz, ez du ingurumena kutsatzen, ezta gizakien osasuna kaltetzen ere. Erabateko lixibiabilitatea, hondakinaren kutsagarri edukia eta lixibiatuaren ekotoxikotasuna ezingo dira esanguratsuak izan eta, bereziki, ezingo dira arriskutsuak izan azaleko edo lurpeko uren kalitatearentzat.

Eraikuntza eta eraispen obra: Jarduera hau izaten da:

1. Ondasun higiezin bat eraikitzea, zaharberritzea, konpontzea edo eraistea, adibidez, eraikuntza bat, errepidea, portua, aireportua, trenbidea, ubidea, urtegia, kirolerako edo aisiarako instalazioa edo ingeniaritza zibileko antzekoren bat.

2. Lursailaren edo lurpearen forma edo substantzia aldatuko duten obrak egitea, hala nola, indusketak, injekzioak, urbanizazioak edo antzekoak, industria erauzketa hondakinen kudeaketari buruzko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren martxoaren 15eko 2006/21/CE Zuzentaraua ezer dakiekeen jarduerak izan ezik.

Eraikuntza txikiko edo etxeko konponketak egiteko obra: Etxe partikular bat, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezina eraikitzeko edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitzeko gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketarik egingo ez duena eta titulatutako profesionalek sinatutako proiekturik behar ez duena.

Eraikuntza eta eraispeneko hondakin ekoizlea:

1. Eraikuntza edo eraispen obra bateko hirigintzako lizentziaren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa; hirigintzako lizentziarik behar ez duten obretan, eraiki edo eraitsi behar den higiezinaren titularra (nahiz pertsona fisikoa nahiz juridikoa) izango da hondakinen ekoizlea.

2. Hondakinen osaeran edo izaeran aldaketak eragiten dituzten tratamenduak, nahasketak edo bestelako eragiketak egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

3. Europar Batasuneko Estatu kideetako edonon eraikuntza eta eraispen hondakinak inportatzen edo erosten dituena.

Eraikuntza eta eraispeneko hondakinen edukitzailea: eraikuntza eta eraispen hondakinak eduki eta hondakinen kudeatzaile izaerarik ez duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Hondakin horiek dituena eraikuntza edo eraispen obra egin duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da; hau da, eraikitzailea, azpikontratistak edo langile autonomoak. Dena dela, besteren kontura lanean ari direnak ez dira eraikuntza eta eraispen hondakinen edukitzailetzat hartuko.

Aldez aurreko tratamendua: eraikuntza eta eraispen hondakinen ezaugarriak aldatzen dituen prozesu fisikoa, termikoa, kimikoa edo biologikoa, sailkapena barne; hondakin horien bolumena edo arriskugarritasuna murrizten du, manipulatzeko errazagoa da, balorizatzeko potentziala hazten zaio edo hondakindegian izan dezakeen jokaera hobetzen du.

Transferentzia Plantak: eraikuntzako hondakinak behin-behinean uzteko instalazioak dira, hondakin horiek distantzia luzeetara dauden instalazioetan tratatu edo deuseztatu behar direnean. Hauen zeregin nagusia hondakinak pilatzea eta garraio gastuak merkatzea da, batzuetan hondakinen zatiak hautatu eta sailkatzeko prozesu txikiagoren bat ere egiten den arren, tratamendu plantetara eta hondakindegietara igorritako EEHen ezaugarriak hobetu asmoz.

Tratamendu Plantak: EEHak tratatzeko instalazioak dira eta hondakin hauek dituzten zatiak aukeratu, sailkatu eta balioztatu egin behar izaten dituzte, zuzenean erabiltzeko produktuak lortzeko edo

Residuo de construcción y demolición: cualquier sustancia u objeto que, cumpliendo la definición de «Residuo» incluida en el artículo 3.a) de la Ley 10/1998, de 21 de abril, se genere en una obra de construcción o demolición.

Residuo inerte: aquel residuo no peligroso que no experimenta transformaciones físicas, químicas o biológicas significativas, no es soluble ni combustible, ni reacciona física ni químicamente ni de ninguna otra manera, no es biodegradable, no afecta negativamente a otras materias con las cuales entra en contacto de forma que pueda dar lugar a contaminación del medio ambiente o perjudicar a la salud humana. La lixiviabilidad total, el contenido de contaminantes del residuo y la ecotoxicidad del lixiviado deberán ser insignificantes, y en particular no deberán suponer un riesgo para la calidad de las aguas superficiales o subterráneas.

Obra de construcción o demolición: la actividad consistente en:

1. La construcción, rehabilitación, reparación, reforma o demolición de un bien inmueble, tal como un edificio, carretera, puerto, aeropuerto, ferrocarril, canal, presa, instalación deportiva o de ocio, así como cualquier otro análogo de ingeniería civil.

2. La realización de trabajos que modifiquen la forma o sustancia del terreno o del subsuelo, tales como excavaciones, inyecciones, urbanizaciones u otros análogos, con exclusión de aquellas actividades a las que sea de aplicación la Directiva 2006/21/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de marzo, sobre la gestión de los residuos de industrias extractivas.

Obra menor de construcción o reparación domiciliaria: obra de construcción o demolición en un domicilio particular, comercio, oficina o inmueble del sector servicios, de sencilla técnica y escasa entidad constructiva y económica, que no suponga alteración del volumen, del uso, de las instalaciones de uso común o del número de viviendas y locales, y que no precisa de proyecto firmado por profesionales titulados.

Productor de residuos de construcción y demolición:

1. La persona física o jurídica titular de la licencia urbanística en una obra de construcción o demolición; en aquellas obras que no precisen de licencia urbanística, tendrá la consideración de productor del residuo la persona física o jurídica titular del bien inmueble objeto de una obra de construcción o demolición.

2. La persona física o jurídica que efectúe operaciones de tratamiento, de mezcla o de otro tipo, que ocasionen un cambio de naturaleza o de composición de los residuos.

3. El importador o adquirente en cualquier Estado miembro de la Unión Europea de residuos de construcción y demolición.

Poseedor de residuos de construcción y demolición: la persona física o jurídica que tenga en su poder los residuos de construcción y demolición y que no ostente la condición de gestor de residuos. En todo caso, tendrá la consideración de poseedor la persona física o jurídica que ejecute la obra de construcción o demolición, tales como el constructor, los subcontratistas o los trabajadores autónomos. En todo caso, no tendrán la consideración de poseedor de residuos de construcción y demolición los trabajadores por cuenta ajena.

Tratamiento previo: proceso físico, térmico, químico o biológico, incluida la clasificación, que cambia las características de los residuos de construcción y demolición reduciendo su volumen o su peligrosidad, facilitando su manipulación, incrementando su potencial de valorización o mejorando su comportamiento en el vertedero.

Plantas de Transferencia: son instalaciones para el depósito temporal de residuos de la construcción que han de ser tratados o eliminados en instalaciones localizadas a grandes distancias. Su cometido principal es agrupar residuos y abaratar costes de transporte, si bien en ocasiones se efectúa en ellas algún proceso menor de selección y clasificación de las fracciones de los residuos, buscando mejorar las características de los RCD enviados a plantas de tratamiento y a vertederos.

Plantas de Tratamiento: son instalaciones de tratamiento de RCD, cuyo objetivo es seleccionar, clasificar y valorizar las diferentes fracciones que contienen estos residuos, con el objetivo de obtener

balioztatu edo birziklatu daitezkeen beste tratamendu bat egiteko hondakinak lortzeko eta horrelakorik ezin bada, hondakindegian deuseztatzeko. Finkoak edo mugikorrak izan daitezke:

- Planta finkoak.Inguru itxi batean dauden birziklatzeko instalazioak dira, administrazioaren baimena dute EEHak birziklatzeko; birziklatze lana egiteko dituzten makinak (batez ere txirbila egiteko ekipoak) finkoak dira eta ez dira kokatuta dauden tokitik kanpo erabiltzen.

- Planta mugikorrak: Makina (administrazioaren baimena behar dute) eta birziklatzeko ekipo mugikorrak dira, obretara joaten dira jatorrian birziklatzeko edo balorizazio eta deuseztatze zentroetara joaten dira, zentro horietan behin-behinean aritzeko.

Hondakindegi kontrolatuak: EEHak behin betirako uzteko instalazioak dira (hondakindegien legedian ezarritako epeen gainetik) eta 1481/2001 EDko ezar dakizkiekeen baldintzak bete behar dituzte.

Baimendutako kudeatzailea: ordenantza honen ondoreetarako, eskumendun erakundeak aurrez baimendutako pertsona fisiko edo juridikoa eta kudeaketan sartzen den edozein eragiketa egiten duena, ekoizlea izan edo ez izan. EEHen kudeatzaileak dagokion Erregistroan izena emanda egon behar dira.

Baimendutako garraiolaria: dagokion erregistroan behar bezala izena emandako pertsona fisiko edo juridikoa; EEHak bildu, garraiatu eta baimendutako kudeatzailearen instalazioetan jarriko dituena.

Lehenengo okupazioa: eraikin berrien kasuan, eraikinak edo instalazioak erabiltzen hasteko baimena; zati baten erreforma, erreforma osoa, finkapena eta zaharberritze lanak egin zaizkien eraikin, eraikuntza unitate eta lokalen kasuan eta erabilera aldatu zainenetan edo erabilera horien intentsitatea aldatu zaienetan ere erabiltzen hasteko baimen hau behar izaten da.

**3. artikulua. Aplikazio eremua.**

Ordenantza honen eremuan sartzen dira 2. artikuluan definitutako hondakinak eta jarduerak. Kanpoan geratzen dira arriskutsutzat sailkatutako substantziak dituzten aurreko hondakinak, hauek gai honetan indarrean dagoen legediak arautu beharko baititu.

Ordenantza Artziniegako udalerri osoan ezarriko da.

**4. artikulua. Araudia.**

Ordenantza honek araututako jokaerek indarrean dauden arauak eta gainerako xedapenak beteko dituzte. Bereziki, eta arautzen ari garen gaiari bereziki lotuta daudelako, aparteko garrantzia dute hauek:

- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

- 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, Hondakinei buruzkoa.
- Hondakinen Plan Orokorra 2008-2015, 2008ko abenduaren 26an Ministro Kontseiluaren Akordio bidez onartutako testua.
- MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, hondakinak balioztatzeko eta deuseztatzeko eragiketak eta hondakinen europar zerrenda argitaratzen duena. Akatsen zuzenketa, 2002ko martxoaren 12ko BOE.
- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babestekoa.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinena eta kutsatutako lurzoruena.
- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

productos finales aptos para su utilización directa, o residuos cuyo destino será otro tratamiento posterior de valorización o reciclado, y si éste no fuera posible, de eliminación en vertedero. Pueden ser fijas o móviles:

- Plantas fijas: son instalaciones de reciclaje ubicadas en un emplazamiento cerrado, con autorización administrativa para el reciclaje de RCD, cuya maquinaria de reciclaje (fundamentalmente los equipos de trituración) son fijos y no operan fuera del emplazamiento donde están ubicados.

- Plantas móviles: están constituidas por maquinaria (la cual requiere autorización administrativa) y equipos de reciclaje móviles que se desplazan a las obras para reciclar en origen o a centros de valorización o eliminación para operar temporalmente en dichas ubicaciones.

Vertederos controlados: son instalaciones para el depósito definitivo de RCD (por encima de los plazos establecidos en la legislación de vertederos) y que deben cumplir los requisitos del RD 1481/2001 que les sea de aplicación.

Gestor autorizado: a efectos de esta ordenanza, persona física o jurídica, previamente autorizada por el organismo competente, que realiza cualquiera de las operaciones que comprende la gestión, sea o no productor de los mismos. Los gestores de RCD habrán de estar inscritos en el Registro correspondiente.

Transportista autorizado: la persona física o jurídica debidamente inscrita en el Registro correspondiente, y responsable de la recogida, transporte y puesta a disposición de los RCD en las instalaciones del gestor autorizado.

Primera ocupación: autorización de la puesta en uso de los edificios o instalaciones resultantes de obras de nueva edificación, y aquellas edificaciones, unidades edificatorias y locales resultantes de obras de reforma parcial, reforma general, consolidación y restauración, y en las que haya habido alteración del uso al que se destinan o modificaciones en la intensidad de dichos usos

**Artículo 3. Ámbito de aplicación.**

Se incluyen en el ámbito de esta ordenanza los residuos y las actividades definidas en el Artículo 2. Se excluyen los residuos anteriores que contengan sustancias clasificadas como peligrosas los cuales deberán regirse por la legislación vigente en esta materia.

El ámbito de aplicación territorial de la Ordenanza será todo el término municipal de Artziniega.

**Artículo 4. Normativa.**

Las conductas reguladas por esta Ordenanza cumplirán las normas y demás disposiciones vigentes. En particular, y por su especial vinculación con la materia objeto de la regulación, son de especial relevancia:

- Ley 30/1992, de 26 de noviembre, por la que se regula el Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
- Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos.
- Plan Integral de Residuos 2008-2015, Texto aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros con fecha 26 de diciembre de 2008.
- Orden MAM/304/2002, de 8 de febrero, por la que se publican las operaciones de valorización y eliminación de residuos y la lista europea de residuos. Corrección de errores BOE del 12 de marzo de 2002.
- Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de residuos de la construcción y demolición.
- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.
- Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protec¬ción de Medio Ambiente del País Vasco
- Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.
- Ley 22/2011, de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados.

- Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

**5. artikulua. Eskumenak.**

Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak 3b artikuluan ezartzen du Hiri edo Udal Hondakinak direla, besteak beste, etxeetako eraikuntza eta konponketa obra txikietako hondarrak eta hondakinak eta obra handiak. Era berean, 4.3 artikuluan Tokiko Erakundeei ematen die hiri hondakinak kudeatzeko eskumena, Lege honetan ezarritako terminoetan eta, dagokionean, Autonomia Erkidegoek agindutakoetan. Jarduera hau Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 84.1 artikuluaren arabera arautu ahal izango da, ordenantzen bidez eta aurrez lizentzia eta kontrolatzeko beste ekintzak burututa.

Eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak bere 6. artikuluan eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena, edukitzea eta kudeaketaren kontrola autonomia erkidegoei eta tokiko erakundeei egozten die eta bien arteko lankidetza eta elkarren arteko laguntza sustatzen ditu.

Bestalde, 105/2008 Errege Dekretuak, bere lehenengo xedapen gehigarrian EDk garatutako EEHen ekoizle eta edukitzaile betebeharretatik (4 eta 5 artikuluak) salbuesten ditu etxeko eraikuntza eta konponketako obra txiki guztiak, horiek tokiko erakundeek euren udal ordenantzetan ezarritako baldintzen pean egon behar baitira.

Eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak 5. artikuluan ezartzen duenez, udalek fidantza bat egin beharra daukate obra handietako eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, ematen dituzten hirigintza lizentziak lortu ahal izateko.

112/2012 Dekretuak berak, Lehenengo Azken Xedapenean, ezartzen du udalerriek Dekretu hau indarrean jarri eta 12 hilabeteko epean udal ordenantzak onartu beharko dituztela estatuko legediak eta Dekretu honek ezarritakoari kalterik egin gabe, obra txikietako eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa arautzeko, mugekin, tasekin, eta dagokionean egon daitezkeen fidantzekin batera eta udalerriko bakoitzeko egoeraren eta kasuen arabera.

**6. artikulua. Helburuak.**

Ordenantza honek helburu hauek ditu:

- Obretako EEHak materialen arabera banatu, 105/2008 EDn ezarritako atalaseen arabera.
- EEHak kontrolik gabe botatzea erauzi.
- Baimenduko kudeatzaileek tratatu EEHak legedian ezarritako terminoetan.
- Sortzen diren EEHak berriro erabiltzea eta birziklatzea sustatu, baita balioztatzeko beste modu batzuk ere.

**7. artikulua. Administrazio Publikoek EEHak balioztatzetik datozen produktuen erabilera eta prebentzioa sustatu.**

Udalak obra publikoen kontratuetan eta obra publikoak ematekoetan, preskripzio teknikoen pleguen bidez EEHen berrerabilpenetik edo birziklatzetik datozen produktuen erabilera sustatuko du.

II KAPITULUA. EEHen KUDEAKETA

**8. artikulua. Arautze orokorra.**

Obrak egiteko, dena delako erregimen juridikoaren mende egon arren, fidantza bat zehaztuko da obra horretan sortutako eraikuntza eta eraispen hondakin guztiak baimendutako kudeatzaile baten esku jartzeko betebeharra bete dadin.

1.- Obra handiak: Eraikuntza eta eraispen hondakinak sortzen dituenak, hondakinei buruzko gainerako baldintzetan ezarritakoari kalterik egin gabe, obra burutzeko proiektuan eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketaren azterketa sartu beharko du (I. Eranskineko eredua edo antzekoa) eta gutxienez honakoak beharko ditu:

**Artículo 5. Competencias.**

La Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, establece en su artículo 3b, que son Residuos Urbanos o Municipales, entre otros, los residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria así como las obras mayores. Asimismo, en su artículo 4.3 atribuye a las Entidades Locales la competencia para la gestión de los residuos urbanos, en los términos establecidos en esta Ley y en las que en su caso, dicten las Comunidades Autónomas. Esta actividad podrá ser regulada, de conformidad con el artículo 84.1 de la ley 7/1985, de 2 de abril de Bases de Régimen Local, a través de ordenanzas y de sometimiento a previa licencia y otros actos de control preventivo.

El Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de residuos de la construcción y demolición, atribuye, en su artículo 6, el régimen de control de la producción, posesión y gestión de los residuos de construcción y demolición a las comunidades autónomas y las entidades locales, promoviendo la colaboración y asistencia mutua entre ambas.

Por otro lado, el Real Decreto 105/2008 en su disposición adicional primera excluye de las obligaciones de productores y poseedores de RCD (artículos 4 y 5) desarrolladas por el RD, a todas aquellas obras menores de construcción o reparación domiciliaria, las cuales deberán estar sujetas a los requisitos que establezcan las entidades locales en sus respectivas ordenanzas municipales.

El Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, en su artículo 5 establece la exigencia a los ayuntamientos, la constitución de una fianza para garantizar la adecuada gestión de los residuos de construcción y demolición procedentes de obra mayor como condición para la obtención de las licencias urbanísticas que otorguen.

El mismo Decreto 112/2012, en la Disposición Final Primera, establece que Los municipios en el plazo de 12 meses desde la entrada en vigor del presente Decreto deberán aprobar ordenanzas municipales en las que, sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación estatal y en el presente Decreto, se regule la gestión de los residuos de construcción y demolición procedentes de obras menores, junto con las limitaciones, tasas, fianzas, a las que hubiere lugar en su caso y de acuerdo con la coyuntura y casuística de cada municipio.

**Artículo 6. Objetivos.**

Esta ordenanza tiene por objetivos:

- Separación de los RCD en obra, por materiales, a partir de los umbrales establecidos en el RD 105/2008.
- Erradicación del vertido incontrolado de RCD.
- Tratamiento de los RCD por gestor autorizado en los términos establecidos en la legislación.
- Fomento de la reutilización y el reciclado de los RCD que se generen, así como otras formas de valorización.

**Artículo 7. Fomento de la prevención y de la utilización de productos procedentes de la valorización de RCD por parte de las Administraciones Públicas.**

El Ayuntamiento fomentará en los contratos de obras públicas y en los de concesión de obras públicas, a través de los pliegos de prescripciones técnicas, la utilización de productos provenientes de la reutilización o reciclaje de los RCD.

CAPÍTULO II. GESTIÓN DE RCD

**Artículo 8. Regulación general.**

En la ejecución de obras, cualquiera que sea el régimen jurídico al cual estén sometidas, se determinará una fianza para responder de la obligación de poner a disposición de un gestor autorizado todos los residuos de construcción y demolición que se generen en dichas obras.

1.- Obra mayor: el productor de residuos de construcción y demolición, sin perjuicio de los demás requisitos exigidos por la legislación sobre residuos, deberá incluir en el proyecto de ejecución de la obra un estudio de gestión de residuos de construcción y demolición (modelo del Anexo I o similar), que contendrá como mínimo:

- Sortuko diren eraikuntza eta eraispen hondakin kopuruaren gutxi gorabeherakoa tonatan eta metro kubikoetan adierazita (1m$^3$=1,4 tona ekibalentzia kontuan izanda) HEZren arabera kodifikatuta.

- Proiektuko obran hondakinak sortzea saihesteko neurriak.

- Obran sortuko diren hondakinak nola berrerabili, balioztatu edo deuseztatuko diren.

- Hondakinak obran banatzeko neurriak; bereziki ordenantza honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera edukitzaileek hondakinok zatika banatzeko betebeharra betetzeko hartuko dituzten neurriak.

- Obra barruan eraikuntza eta eraispeneko hondakinak biltegiratzeko, maneiatzeko, banatzeko eta, dagokionean, kudeatzeko aurreikusitako instalazioen planoak.

- Proiektuko preskripzio tekniko partikularren pleguko baldintzak, eraikuntza eta eraispeneko hondakinak obra barruan biltegiratzeko, maneiatzeko, banatzeko eta, dagokionean, kudeatzeko gainerako beste eragiketei dagokienez.

- Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketan aurreikusitako gastuaren balorazioa; proiektuko aurrekontuen zati izango da aparteko kapitulu batean.

- Eraisteko, zaharberritzeko edo konpontzeko obretan sortuko diren hondakin arriskutsuen inbentarioa egingo da.

2.- Obra txikiak: Proiektu teknikoaren beharrik ez dagoen obren kasuan, dena delako erregimen juridikoaren mende egon arren, eraikuntza eta eraispen hondakinak ekoitzi dituenak Udalaren aldeko fidantza bat egin beharko du sortutako EEHak ongi kudeatuko direla ziurtatzeko, ordenantza honetako 9. artikuluan zehazten den legez.

**9. artikulua. Fidantza zehaztu.**

1.- Obra handiak: nahiz eraispenetako eta eraikuntzako nahiz indusketetako hondakinentzako 8. artikuluan aurreikusitako fidantzaren zenbatekoa, eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketako azterketan ezarritako eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketan aurreikusitako gastuaren ehuneko 120 izango da.

2.- Obra txikiak: 8. artikuluan aurreikusitako fidantzaren zenbatekoa honela finkatuko da:

- Gutxienez berrehun (200,00) euro eta gehienez obraren osoko aurrekontuaren ehuneko 5, aurrekontua hiru mila (3.000,00) euro baino gehiagokoa bada.

- Berrehun (200,00) euro, aurrekontua hiru mila (3.000,00) euro baino txikiagokoa bada.

Obra publikoen proiektuek euren berariazko araudia izango dute eta ez dute fidantza hau ordaindu beharrik izango; dena dela, lurrak eta material soberakinak kudeatzeko sistema zehaztuko dute, ordenantza honetako helburuen arabera.

Fidantzen gastuak hiru urtetik behin eguneratuko dira, aldi horretan pilatutako KPIaren arabera.

Kalkuluaren oinarrian akatsen bat hautemanez gero, administrazioak eskatzaileari fidantzaren gainerakoa ere eratzeko eska dakioke, aurrekontuaren diferentziari dagokiona.

Eskatzaileak fidantza egiteko, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko martxoaren 18ko 13/1995 Legean eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko testu bateratua onartzen duen 1/2000 Errege Dekretu Legegilean aurreikusitako moduak erabil ditzake.

**10. artikulua. Prozedura.**

Hondakinak dituenak higiene eta segurtasun baldintza egokietan mantendu beharko ditu hondakin horiek, bere esku dauden bitartean, era berean, jada hautatutako zatiak ez ditu berriro nahastuko, ondoren balioztatzea edo deuseztatzea galarazten edo zailtzen badute.

1.- Obra handiak: eraikuntza eta eraispen hondakinak zati hauetan banatu beharko dira, obra horretan zati horietako bakoitzaren kopuru hauek baino gehiago sortuko direla aurreikusi bada:

- Una estimación de la cantidad, expresada en toneladas y en metros cúbicos (teniendo en cuenta la equivalencia de 1m$^3$=1,4 toneladas), de los residuos de construcción y demolición que se generarán en la obra codificados según LER.

- Las medidas para la prevención de generación de residuos en la obra objeto del proyecto.

- Las operaciones de reutilización, valorización o eliminación a que se destinarán los residuos que se generarán en la obra.

- Las medidas para la separación de los residuos en obra, en particular, para el cumplimiento por parte del poseedor de los residuos, de la obligación de separar en fracciones de acuerdo con lo establecido en el artículo 10 de la presente ordenanza.

- Los planos de las instalaciones previstas para el almacenamiento, manejo, separación y, en su caso, otras operaciones de gestión de los residuos de construcción y demolición dentro de la obra.

- Los requisitos del pliego de prescripciones técnicas particulares del proyecto, en relación con el almacenamiento, manejo, separación y, en su caso, otras operaciones de gestión de los residuos de construcción y demolición dentro de la obra.

- Una valoración del coste previsto de la gestión de los residuos de construcción y demolición que formará parte del presupuesto del proyecto en capítulo independiente.

- En obras de demolición, rehabilitación, reparación o reforma, hacer un inventario de los residuos peligrosos que se generarán.

2.- Obra menor: para aquellas obras en las que no sea necesaria la elaboración de un proyecto técnico, cualquiera que sea el régimen jurídico al cual estén sometidas, el productor de residuos de construcción y demolición deberá constituir una fianza a favor del Ayuntamiento que asegure la correcta gestión de los RCD generados tal y como se detalla en el artículo 9 de la presente ordenanza.

**Artículo 9. Determinación de la fianza.**

1.- Obra mayor: el importe de la fianza prevista en el artículo 8 se fija, tanto para residuos procedentes de derribos y de la construcción como para residuos procedentes de excavaciones, en el 120 por ciento del coste previsto de la gestión de residuos de construcción y demolición establecido en el correspondiente estudio de gestión de residuos de construcción y demolición.

2.- Obra menor: el importe de la fianza prevista en el artículo 8 se fija en las cuantías siguientes:

- Un mínimo de doscientos (200,00) euros y un máximo del 5 por ciento del presupuesto total de la obra, cuando el presupuesto sea superior a tres mil (3.000,00) euros.

- Doscientos (200,00) euros, si la cuantía del presupuesto es inferior a tres mil (3.000,00) euros.

Los proyectos de obras públicas se regirán por su normativa específica quedando eximidos del pago de esta fianza, y concretarán, en todo caso, el sistema de gestión de las tierras y materiales sobrantes, de acuerdo con los objetivos de esta ordenanza.

Los costes de la fianza serán actualizados cada tres años según el IPC acumulado en este periodo.

La administración podrá requerir al solicitante cuando se detecte algún defecto de la base de cálculo, la constitución del resto de la fianza correspondiente a la diferencia resultante del presupuesto.

La fianza podrá hacerse efectiva por el solicitante en la forma prevista por la Ley 13/1995, de 18 de mayo de Contratos de las Administraciones Públicas así como el Real Decreto Legislativo 1/2000 que aprueba el texto refundido la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

**Artículo 10. Procedimiento.**

El poseedor de los residuos estará obligado, mientras se encuentren en su poder, a mantenerlos en condiciones adecuadas de higiene y seguridad, así como a evitar la mezcla de fracciones ya seleccionadas que impida o dificulte su posterior valorización o eliminación.

1.- Obra mayor: los residuos de construcción y demolición deberán separarse en las siguientes fracciones, cuando, de forma individualizada para cada una de dichas fracciones, la cantidad prevista de generación para el total de la obra supere las siguientes cantidades:

a) Hormigoia (HEZ 170101): 10 t.
b) Adreiluak (HEZ 170102), teilak eta material zeramikoak (HEZ 170103): 10 t.
c) Metala (HEZ 1704, azken bi digituak dagokion metalaren arabera jarriko dira): kasu guztietan.
d) Zura (HEZ 170201): kasu guztietan.
e) Beira (HEZ 170202): 0,25 t.
f) Plastikoa (HEZ 170203): kasu guztietan.
g) Papera eta kartoia (HEZ 200101): 0,25 t.
h) Sabai aizun, moldura eta paneletako igeltsua (HEZ 170802).

Kasu guztietan eraikuntza eta eraispeneko hondakinak dituenak egingo du zatikako banaketa, batez ere, eta hondakinak sortu diren obraren barruan egin beharko du.

Obran espazio fisikorik ez dagoelako, banaketa hori egiterik ez dagoenean, edukitzaileak hondakinen kudeatzaile bati agindu dakioke zatiak banatzea, obratik kanpo dagoen eraikuntza eta eraispen hondakinak tratatzeko instalazio batean. Azkeneko kasu honetan, instalazioaren kudeatzaileak ziurtagiria eman beharko dio edukitzaileari, atal honetan adierazitako betebeharra bere izenean bete duela adieraziaz.

Sortutako EEHak baimendutako kudeatzaile baten esku jarriko dira, eta honek horiek onartzen dituela dioen ziurtagiria egin beharko du. Ekoizleak Udaleko eskumendun organoari igorri beharko dio ziurtagiri hori 30 egun naturaleko epean eta datu hauek izango ditu, gutxienez:

1. Obraren izena eta obren lizentzia zenbakia.
2. Ziurtagiriaren data eta aginduaren zenbakia.
3. Obraren kokapena.
4. Onartutako EEHen deskripzio eta kuantifikazio zehatza.

5. EEHen helmuga.

Obrak egingo ez balira, bermea itzultzeko eska dezake ekoizleak.

2.- Obra txikiak: Obra txikietako EEHak entregatzeko tokia honela egingo da:

a) Zuzeneko udal kudeaketa izanez gero, obrako EEHak Udalaren kudeatzaile edo partzuergo emakidadunari besterenduko zaizkio.

b) Bestela:

1. Bide publikoan ezarritako edukiontzietara botako dira zuzenean. Edukiontziok EEHak ekoitziko dituenak kontratatu izango ditu.
2. Baimendutako kudeatzaileetara zuzenean.
3. 100 kilogramo baino gutxiagoko EEH bolumenen kasuan, ekoizleak zuzenean eraman ahal izango ditu Garbigunera.

**11. artikulua. Fidantza itzuli.**

1.- Obra handiak: Obrak amaitutakoan, kudeatzaileak azken onarpen ziurtagiria eman eta 30 eguneko epean EEHen onespen ziurtagirien zerrenda osoa aurkeztu beharko du Udaleko eskumendun organoan.

Onespen ziurtagirietako datuak eta eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa azterketaren bidez egindako aurreikuspenekoak alderatuko ditu Udalak eta obretan ekoiztutako eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatu direla ziurtatzen duten agiriak eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketako planean erabakitakoaren araberakoak direla egiaztatuko du. Bi informazio horiek bat baldin badatoz, fidantza itzuliko zaio. Bat ez baldin badatoz, behar bezalako justifikazioa eskatuko da eta behin hori lortutakoan, fidantza itzuliko da, baina justifikaziorik lortzen ez bada, fidantzaren itzulera blokeatu egingo da.

2.- Obra txikiak.

a) Udalak zuzenean kudeatutakoen kasuan, kudeatzaileak edo partzuergo emakidadunak ziurtagiri bat egingo du tratatutako hondakin kopuruari eta motei buruz, obra amaitu ondoren. Ziurtagiri hau eta dagokiona ordaindu izana justifikatzen duten egiaztagiriak Udalean aurkeztu beharko dira kudeatzaileak edo emakidadun partzuergoak

a) Hormigón (LER 170101): 10 t.
b) Ladrillos (LER 170102), tejas y materiales cerámicos (LER 170103): 10 t.
c) Metal (LER 1704, seleccionando los dos últimos dígitos en función del metal de que se trate): en todos los casos.
d) Madera (LER 170201): en todos los casos.
e) Vidrio (LER 170202): 0,25 t.
f) Plástico (LER 170203): en todos los casos.
g) Papel y cartón (LER 200101): 0,25 t.
h) Yeso de falsos techos, molduras y paneles (LER 170802).

En todos los casos La separación en fracciones se llevará a cabo preferentemente por el poseedor de los residuos de construcción y demolición dentro de la obra en que se produzcan.

Cuando por falta de espacio físico en la obra no resulte técnicamente viable efectuar dicha separación en origen, el poseedor podrá encomendar la separación de fracciones a un gestor de residuos en una instalación de tratamiento de residuos de construcción y demolición externa a la obra. En este último caso, el poseedor deberá obtener del gestor de la instalación documentación acreditativa de que éste ha cumplido, en su nombre, la obligación recogida en el presente apartado.

Los RCD generados deberán ser puestos a disposición de un gestor autorizado, quien deberá emitir un certificado de aceptación de los mismos. Dicho certificado deberá ser remitido por el productor al órgano competente de Ayuntamiento en el plazo de 30 días naturales y contendrá al menos los siguientes datos:

1º. Nombre de la Obra y número de la licencia de obras.
2º. Fecha y número de orden del certificado.
3º. Ubicación de la Obra.
4º. Descripción y cuantificación pormenorizada de RCD aceptados.
5º. Destino de los RCD.

